



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Naroa Intxausti sopranoak eta Aurelio Viribay pianistak Gerra Zibilaren ondoren erbestean izan ziren konpositoreen abesti ezezagunak interpretatuko dituzte

- Emanaldia urtarrilaren 24an izango da, asteazkenean, 19:30ean, eta harekin emango zaio hasiera LIED ARRIAGAN zikloaren bigarren edizioari, sei hileko honetan bost kontzertu izango dituenari.

Bilbo, 2024ko urtarrilaren 22a.- Arriaga Antzokiko foyerra LIED ARRIAGAN zikloko bigarren edizioari harrera egiteko prestatzen ari da, hasi berri dugun 2024ko lehen sei hilekoan bost kontzertu eskainiko baititu piano eta ahots formatuan. Zikloko lehen emanaldia asteazkenean izango da, urtarrilaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, **Naroa Intxausti** sopranoarekin, **Aurelio Viribay** maisua pianista lagun duela.

Intxaustik eta Viribayk egitarau oso berezia prestatu dute kontzertu honetarako. Erbestea, desterrua eta "transterrua" dira errezitalaren ardatz tematiko nagusiak, zeinetan Gerra Zibilaren ondoren erbestea jasan zuten konpositoreen abesti ezezagunak aurkeztuko baitituzte, hala nola Salvador Bacarisse, Julián Bautista, Gustavo Pittaluga eta María Rodrigo konpositoreek sortutakoak, bai eta «barne erbestealdia» pairatu zuen Fernando Remacharenak ere. Horrez gain, erbesteak eta desterruak eragiten duten minaren gaiari heldu dioten beste konpositore batzuen piezak ere entzungo ditugu.

Naroa Intxaustik eta Aurelio Viribayk sei egileren lanak interpretatuko dituzte, aurretik aipatutako Salvador Bacarisse (1898-1963), Julián Bautista (1901-1961) eta Fernando Remacharenak (1898-1984), eta Joan Maria Thomàs (1896-1966) María Rodrigo (1888-1967) eta Emiliana de Zubeldia (1888-1987) konpositoreen konposizioak.

Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren bigarren edizioa antolatu du 2024ko urtarrila eta ekaina bitartean, iaz lehen edizioan ikusleek hain harrera ona egin ondoren. Naroa Intxausti eta Aurelio Viribayren kontzertua Arriaga Antzokiak ziklo horren baitan programatutako bost kontzertuetatik lehena da. Hurrengo otsailaren 14an izango da, eta Javier Povedano baritonoak eta klarinete jotzaileak Rubén Fdez. Aguirre pianistak interpretatuko dute. Bi hilabete geroago, apirilaren 10ean, Fdez. Aguirreraren teklek beste ahots bati lagunduko diote, Carmen Artaza mezzosopranoaren ahotsari, hain zuzen. Maiatzean, hilaren 8an, Adriana Viñuela sopranoaren eta Elisa Rapado pianistaren txanda izango da. Azkenik, Lied Arriagan zikloari amaiera emateko, Miren Urbieta sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Sebastián Iradierren eta Jesús Guridiren konposizio atonalak arakatuko dituzte. Ekainaren 12an izango da.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus